Arkeologia Fournier de Naipes Museoa

JATORRIA
ORÍGENES

ERAKUSKETA EXPOSICIÓN

2019 ko martxotik urrira arte De marzo a octubre de 2019

PALEOLITO AROA ARABAN EL PALEOLÍTICO EN ÁLAVA



Bibat
Arkeologia Fournier de Naipes Museoa

PALEOLITO AROA ARABAN EL PALEOLÍTICO EN ÁLAVA

ERAKUSKETAREN KOMISARIOTZA COMISARIADO DE LA EXPOSICIÓN:
Álvaro Arrizabalaga Valbuena (UPV/EHU)
Maria Jose Iriarte Chiapusso (IKERBASQUE-UPV/EHU)

Laguntzailea / Colabora:
Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea

KOORDINAZIOA COORDINACIÓN:
Bibat. Arabako Arkeologia Museoa
Bibat. Museo de Arqueología de Álava

MATERIALAK MATERIALES:
Gordailua. Gipuzkoako Ondare Bildumaren Zentroa. Gipuzkoako Foru Aldundia
Arabako Natura Zientzien Museoa; Bibat. Arabako Arkeologia Museoa
Gordailua. Centro de Colecciones Patrimoniales de Gipuzkoa. Diputación Foral de Gipuzkoa
Museo de Ciencias Naturales de Álava; Bibat. Museo de Arqueología de Álava

EKOIZPENAREN ETA MUNTAKETAREN DISEINUA ETA KOORDINAZIOA
DISEÑO Y COORDINACIÓN DE PRODUCCIÓN Y MONTAJE:
Anuska Graphic

ILUSTRAZIOAK ILUSTRACIONES:
Álex Fernández

ITZULPENA TRADUCCIÓN:
Euskara Zerbitzua (AFA)
Servicio de Euskera (DFA)

ZAHARBERRITZEA RESTAURACIÓN:
Zaharberrikuntza Zerbitzua (AFA)
Servicio de Restauración (DFA)

ERREPLIKAK RÉPLICAS:
Suhar Arkeologia
Maite García Rojas

BIDEOAK VÍDEOS:
Una piedra, un útil más eficaz © Museo de Altamira
Una piedra, varios útiles © Museo de Altamira
La revolución tecnológica © Museo de Altamira
Museo Nacional y Centro de Investigación de Altamira
Ministerio de Cultura y Deporte de España

IRUDIAK IMÁGENES:
Bibat. Arabako Arkeologia Museoa
Bibat. Museo de Arqueología de Álava
Joseba Ríos Garaizar

LG - DL VI 102-2019

JATORRIA

Gizateriaren historia ekialdeko Afrikan hasi zen orain dela 2,6 milioi urte. Ordutik, zenbait giza espezie bizi izan dira paisaia aldakorretan, klima egoera berrietara egokituz, hainbat eta hainbat landare eta animaliarekin batera.

Paleolitoa da gure historiako kultura aro luzeena eta kritikoena; izan ere, tarte luze horretan izandako garapen fisiko nahiz kulturalak lehendabiziko hominidoak gaur egun garenaren oinarri bihurtu zituen.

ORÍGENES

La historia de la Humanidad comenzó en África oriental, hace unos 2.6 millones de años. Desde entonces varias especies humanas han habitado paisajes cambiantes, adaptándose a nuevas situaciones climáticas y conviviendo con diferentes plantas y animales.

El Paleolítico es el período cultural más largo y crítico de nuestra historia pues durante él se dio el desarrollo, tanto físico como cultural, que convirtió a aquellos primeros homínidos en la base de lo que hoy somos.

INGURUNE ALDAKORREAN BIZIRAUTEN

Giza talde paleolitikoak ehiza, arrantza eta bilketatik bizi ziren gehienbat; beraz, bizi ziren ingurunearen mendekotasun handia zuten.

Urtaroaren arabera, haitzulo, aterpe edo aire zabaleko kanpalekuetan bizi ziren. Horien kokapena faktore estrategikoak kontuan hartuz hautatzen zuten, hala nola uretatik eta lehengaietatik hurbil egotea eta inguruak begiz ikuskatu ahal izatea.

Paleolitoan izan ziren aldaketa klimatiko handiek ingurunea eraldatu zuten eta bizi baldintzei eragin zieten. Aldi glaziarrak izan ziren (oso garai hotzak, gutxi gorabehera 100.000 urteko iraupena zutenak) eta glaziarartekoak (tarte beroagoak, 10.000 eta 15.000 urte arteko iraupena zutenak). Aldi glaziar eta glaziazio arteko aldi bakoitzean ere intentsitate desberdineko faseak izan ziren. Hotzei *estadial* deritze eta beroagoei *interrestadial*.



SOBREVIVIENDO EN UN ENTORNO CAMBIANTE

Los grupos humanos paleolíticos vivían principalmente de la caza, pesca y recolección; por tanto, tenían una gran dependencia del medio en el que se desenvolvían.

Ocupaban de manera estacional cuevas, abrigos o campamentos al aire libre cuya ubicación seleccionaban teniendo en cuenta factores estratégicos como el acceso al agua y a las materias primas, o el dominio visual del territorio.

A lo largo del Paleolítico hubo importantes cambios climáticos que transformaron el medio y afectaron a las condiciones de vida. Existió una alternancia de periodos glaciares (épocas muy frías de unos 100.000 años) e interglaciares (más cálidos con una duración de entre 10.000 y 15.000 años). Dentro de cada periodo glaciar e interglaciar existieron fases de diferente intensidad. Las frías se denominan *estadiales* y las benignas *interestadiales*.

Oso garai hotzetan:

Elur iraunkorren maila 1.000 metrotik behera egoten zen eta itsasertzeko lerroa gaur egungoa baino urrutiago. Mamuten, errinozero iletsuen, elur oreinen, muxarren eta glotoi gisako animaliek lurraldea partekatzen zuten. Landaretza estepakoa zen: zuhaitz gutxi eta enbor motzeko zuhaixkak izaten ziren isolaturik (pinuak, ipuruak…).

En épocas muy frías:

El nivel de nieves perpetuas se encontraría por debajo de los 1.000 metros de altitud y la línea de costa estaría más alejada de la actual. Animales como los mamuts, rinocerontes lanudos, renos, marmotas y glotones compartían este territorio durante las épocas frías. La vegetación era de tipo estepario, con pocos árboles y arbustos de porte bajo, (pinos, enebros...) dispuestos de forma aislada.

Garai epelagoetan:

Elur iraunkorrak desagertzen ziren eta itsasoaren mailak gora egiten zuen, aurretik hartutako kokalekuak urez betez. Bestelako animaliak izaten ziren: oreinak, basurdeak, orkatzak, ahuntzak eta zaldiak. Zuhaitz kopurua eta hosto erorkorreko espezieen kopurua handitzen zen (hurritza, urkia, haritza eta haltza).

En épocas más templadas:

Las nieves perpetuas desaparecerían y el nivel del mar subiría, inundando asentamientos anteriores. Animales como ciervos, jabalís, corzos, cabras y caballos habitaban el paisaje. Aumentaba el número de árboles, con una mayor presencia de especies caducifolias como el avellano, el abedul, el roble y el aliso.



ABENTURA HANDI BATEN HASIERA:
BEHE PALEOLITO AROA

Garai haren hasieran agertu ziren hominidoek egindako aurreneko tresnak.

Giza adimenaren pixkanakako garapenak berekin ekarri zituen aldaketa sozio-kulturalak eta teknologikoak (besteak beste, sua erabiltzeko gaitasuna edota lanabes hobeak egitea) eta horiek ezaugarri fisikoak baino garrantzizkoagoak izatea ingurune aldakorrean egokitzeko eta bizirauteko orduan.

Araban lurraldeko lehen biztanleen aztarna bakarrak harrizko lanabes bakanak dira, azken aldiz erabili ziren lekutik kanpo aurkitutakoak. Aurkikuntzetako asko egun Uribarri-Ganboako eta Urrunagako urtegiak dauden lurretan egin ziren.

EL INICIO DE UNA GRAN AVENTURA: EL PALEOLÍTICO INFERIOR

Su inicio está marcado por la aparición de las primeras herramientas fabricadas por homínidos.

El progresivo desarrollo de la capacidad intelectual humana hizo que las transformaciones socio-culturales y tecnológicas, como el dominio del fuego o las mejoras en la fabricación de herramientas, fueran cada vez más determinantes que las físicas a la hora de adaptarse y sobrevivir en un medioambiente cambiante.

En Álava, los restos que nos quedan de los primeros habitantes son útiles de piedra encontrados de forma aislada y fuera del lugar en el que se usaron por última vez. Muchos de estos hallazgos se han descubierto en el territorio hoy ocupado por los embalses de Ullibarri-Gamboa y Urrunaga.

NEANDERTALEN GARAIA: ERDI PALEOLITO AROA

Europan, neandertalak dira Erdi Paleolitoko (250.000-42.000) protagonistak.

Gurekin konparatuta fisikoki desberdinak izan arren, hitz egiteko eta modu sinbolikoan pentsatzeko gaitasuna zuten. Hildakoak ehorzten zituzten, apaingarriak erabiltzen, eta litekeena da kobazuloetako hormak ere margotu izana.

Haitzuloetan, harpeetan eta aire zabalean bizi ziren, elkarrengandik nahiko isolaturik zeuden talde txikietan.

Neandertalak eta gizaki modernoak (*Homo sapiens*) ingurune berean bizi izan ziren eta hibridatzera ere iritsi ziren Ekialde Hurbilean. Are gehiago, Saharaz hegoaldeko pertsonak alde batera utzita, beste gaur egungo gizakiek neandertalekin partekatzen dugu gure material genetikoaren %4.

Espezie hori orain dela 40.000 urte inguru desagertu zen, oraindik ere ezagutzen ez ditugun arrazoiak tarteko.



Levallois zizelkatzea Erdi Paleolitoan garatu zen: arrokak lantzen zituzten harik eta dortoka baten oskolaren moldea eman arte (Levallois nukleoa); hortik puntak eta printzak ateratzen zituzten aldez aurretik zehaztutako diseinu baten arabera.

Arrillorko kobazuloa (Murua) Erdi Paleolitoko aztarnategirik garrantzitsuena da Araban. Garai hartan neandertal talde desberdinek hartu zuten bizilekutzat aldizka.



Han aurkitu zen Arabako gizaki aztarnarik zaharrena, haur neandertal baten esne hagina. Aurkikuntza bikain horren ondoan, harrizko tresna ugari eta kobazuloko biztanleek ehizatutako animalien hezur mordoa aurkitu ziren.

TIEMPOS DE NEANDERTALES: EL PALEOLÍTICO MEDIO

En Europa los neandertales son los protagonistas del Paleolítico medio (250.000-42.000).

Aunque físicamente eran algo diferentes a nosotros, contaban con capacidad para el lenguaje y el pensamiento simbólico. Enterraban a sus muertos, utilizaban adornos, y puede que llegaran a pintar las paredes de las cuevas.

Vivían en cuevas, abrigos y al aire libre, en pequeños grupos relativamente aislados unos de otros.

Neandertales y humanos modernos (*Homo sapiens*) convivieron y llegaron a hibridarse en Oriente Próximo. De hecho, a excepción de las personas de origen subsahariano, compartimos con los neandertales hasta un 4% de nuestro material genético.

Su extinción se produjo hace unos 40.000 años por causas aún desconocidas.

La talla Levallois se desarrolló durante el Paleolítico medio. Consiste en trabajar la piedra dándole forma de caparazón de tortuga -núcleo levallois- para extraer puntas y lascas con un diseño predeterminado.

La cueva de Arrillor (Murua) es el yacimiento más destacado del Paleolítico Medio en Álava. Estuvo habitada a lo largo de este período de manera discontinua por múltiples grupos de neandertales.

En ella se halló el resto humano más antiguo de Álava, un diente de leche de un niño o niña neandertal. Además de éste, se encontraron multitud de herramientas de piedra y huesos de los animales cazados por los habitantes de la cueva.

GOI PALEOLITO AROA: KLIMA HOTZEKO EHIZTARIAK

Goi Paleolitoa bat dator, gutxi gorabehera, azken glaziazioko bigarren erdialdearekin, hau da, Izotz Aroa deritzonarekin.

Garai hartan aurreko giza espezie guztiak ordeztu ziren eta biziraun zuen espezie bakarra *Homo sapiens*a izan zen.

Haren lanabesek erabilera zehatzagoa zuten eta neurri txikiagokoak ziren, eta, beraz, mota gehiago zituzten. Arpoiak, xabalina puntak, azagaiak, hagaxkak eta abar egiten zituzten hezurrez eta adarrez.

Pentsamendu sinbolikoa garatu zuten eta artearen bidez adierazten zuten, Altamira, Ekain, Isturitz edo Santimamiñen topatutako margolan eta grabatuen bidez ez ezik, baita objektuen bidez ere, besteak beste, harrizko plakatxoen, eskultura txikien edota landutako hezurren bidez.

Lantze laminarraren garapenak euskarri luzangen ekoizpen estandarizatua ahalbidetu zuen, bai eta arroken aprobetxamendu egokiagoa ere. Horretarako, ezinbestekoa zen kalitate handiko lehengaia izatea, eta horrek, askotan, berekin zekarren 50 kilometrotik gorako distantziak ibili beharra.



Eskuarki, Goi Paleolito Aroa lotu izan dugu kobazuloetan bizitzeko usadioarekin. **Araban** aztarnak aurkitu dira Gorbeiako Arrillor eta Mairulegorreta kobazuloetan.
Nolanahi ere, suharrizko harrobien ustiapenarekin zerikusia zuten aire zabaleko aztarnategiak ere aurkitu dira, hala nola Pelbartekoa (Egino) eta El Pradokoa (Burgeta, Trebiñu).

Garai hartako aztarna arkeologikoak oso urriak dira gure lurraldean. Haien hauskortasunak, nekazaritza jarduera handiak eta urtegiak eraikitzeak azal dezakete, beste ikerkuntza baldintza batzuekin batera, gabezia hori.

PALEOLÍTICO SUPERIOR: CAZADORES EN EL FRÍO

El Paleolítico superior coincide, aproximadamente, con la segunda mitad de la última glaciación, también conocida como la Edad del Hielo.

Durante este período se produce la sustitución de todas las especies humanas anteriores, quedando como único superviviente el *Homo sapiens*.

Sus herramientas eran más pequeñas y de uso más específico, por lo que contaban con una mayor variedad de tipos. Utilizaban el hueso y el asta para fabricar arpones, puntas de jabalina o *azagayas*, varillas etc.

Además, desarrollaron el pensamiento simbólico y su expresión a través del arte, no sólo en las pinturas y grabados de cuevas como Altamira, Ekain, Isturitz o Santimamiñe, sino en multitud de objetos muebles como plaquetas de piedra, pequeñas esculturas o huesos trabajados.

La talla laminar permitió la creación estandarizada de soportes alargados (láminas) y un mejor aprovechamiento de las rocas. Para ello, era indispensable contar con una materia prima de gran calidad, lo que en ocasiones implicaba recorrer distancias de más de 50 km.

Habitualmente asociamos el Paleolítico superior con la habitación en cuevas. **En Álava** se han hallado restos en la cueva de Arrillor y en Mairulegorreta, ambas en el Gorbea. Sin embargo, también existieron yacimientos al aire libre relacionados con la explotación de canteras de sílex, como los de Pelbarte (Egino) y El Prado (Burgueta,Treviño).

Los restos arqueológicos de este período son muy escasos en nuestro territorio. Su fragilidad, la intensa actividad agraria y la construcción de los embalses, pueden explicar, junto a otros condicionantes de la investigación, este vacío aparente.

JATORRIA
ORIGENES

Bibat. Arabako Arkeologia Museoa
Bibat. Museo de Arqueología de Álava

Aiztogile kalea, 54
Cuchillería, 54
01001 Vitoria-Gasteiz

945 203700

bibat@araba.eus

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava